

BERTSOLATA 2002

Zortzi bertso ekitaldi aurten Bertsolatan eta Taldekako txapelketako finala bihar

■ Urteroko jaialdiaz gain, gaiei buruzko eztabaida, 'bertso afari prehistorikoa' eta 20garren mendeari buruzko bertso jarriak ere izango dira ■ Bertsolata bertso eskolak antolatzen du eta Udalaren laguntza du.

SEIGARREN urtez segidan, Bertsolata bertso ekitaldiz beteta dator. *Iraulio Panttalone Bertso Kabiya*k aurten ere publiko eta bertsozale mota ezberdinentzako eskaintza egin du, eta egitarauan bildu ditu esperimenduak eta urtetako tradizioa duten bertso ekitaldiak. Berez, aurreneko ekitaldia aurreko astean izan zen, ikasleei eskainia, eta Biteri bete umek gozatu zituen Asiskoren marrazkiak eta Maialen Lujanbio eta Iñaki Gurrutxagaren bertsoak.

Bihar, igandea, Kaxkuak eta Tellerigainek Taldekako txapelketako finala jokatu dute Larregain sagardotegian, eta 100 pertsona inguru bilduko dira bazkaritan. Sarrerak: Garin, Oindi, Kitto eta Aralarren, 18 euroan.

Astelehenean gaiei buruzko eztabaida izango da Biterin. Aurten Bertsozale elkarteak gaia gai hartuta jar-

EGITARAUA

ABENDUAK 22, IGANDEA

Taldekako finala: Tellerigain eta Kaxkua. Larregain, 14:00etan

ABENDUAK 23, ASTELEHENA

Gaiei buruzko eztabaida: Maialen Lujanbio eta Karlos Aizpurua. Biterin, 19:00etan.

ABENDUAK 26, OSTEGUNA

Mende baten aldarriak, Hogeigarren mendean jarriak. Jon Maia eta Xabier Amuriza. Kixkalan 20:00etan.

ABENDUAK 27, OSTIRALA

Bertso afari prehistorikoa. Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Josu Goikoetxea. Arrigoainen 21:00etan.

ABENDUAK 28, LARUNBATA

Kaleko trama. Aralarreko terrazan, 19:30etan.

ABENDUAK 29, IGANDEA

Bertso jaialdia. Egaña, Peñagarikano, Sarriegi, Urdangarin, Agirre eta Mendiluze. Sandiusterrin, 19:00etan.

ABENDUAK 31, ASTEARTEA

Erronda. 17:30etan, arkupetan.



Gurrutxaga eta Lujanbio kantari, Asisko marrazten ari dela, Biterin, Hernani eta Goizuetako ikasleentzako antolatutako saioan.

dunaldi batzuk antolatu ditu eta Iraulio pentsatu du interesantea dela eztabaida hori herrira eta bertso eskolara ekartzea. Ostegunean, Amuriza eta Maiaren espektakulua izango da: mende baten historia bertso idatzietan kontatua. Ostiralean bertso afari prehistorikoa egingo da, bertso eskolako gaztetxoek aukera-

tutako bertsolariekin: Iturriaga eta Colinarekin, Josu Goikoetxea gidogile dutela. Larunbatean, kaleko trama egingo da urtero bezala eta igandean bertso jaialdia puntako 6 bertsolariarekin: Egaña, Urdangarin, Peñagarikano, Sarriegi, Mendiluze eta U. Agirre. Azkenik, 31an, urte zaharreko erronda. □

Karabelgo krossa bihar goizean

BELKARA auzo elkarteak antolatuta herri krossa izango da bihar Karabelen. Ume eta helduentzako da eta izen ematea zabalik dago. Aldez aurretik apuntatu nahi duenak 17:00etatik 20:00etara jo behar du auzo elkartearen lokalera, eta bes-tela egunean bertan ere apuntatu liteke. Umek 600 eta 1.200 metro egin beharko dituzte eta helduek 8.300 metro, auzoan barrena. Karrerak: 10:30etan hasiko dira. □

Santo Tomas gaur

HERNANIN ere ospatuko da gaur Santo Tomas eguna. Urtero bezala, eguerdian txistorra izango da leku askotan. Jubilatu Etxean taberna itxita dago, hala ere, izango dira txistorra pintxoak eta sagardoa. Sandiusterrin, 17:00etan izango da txistorra, eta Karabelen 17:30etan. Orkolagan, eguerdiko 12:00etan txistorra eta arratsaldeko 18:00etan kontzertua izango da: *Selektah Sound System, Aфония Hell Beer Boys, Sobredosis de Mistol, Ostiada oi* eta *40 de fiebre*. □

Barrikotea Elutxetan

URTERO bezala, barrikotea egingo da gaur Elutxetan, trikitalari eta Bertsolariarekin. Afalondoan Epelde eta Larrañaga trikitalariak arituko dira giroa berotzen, eta gero Mañukorta eta Larrañaga bera bertsoan. Barrikotea 20:00etan da.

Txistulari Bandak kontzertua emango du gaur, eta Musika Bandak bihar

■ Txistulari Banda gaur 17:00etan, Milagrosan ■ Musika Banda bihar, 13:00etan, Udaletxeko arkupeetan.

GAUR eta bihar bi kontzertu izango ditugu, Gabon festen bueltan antolatutak. Gaur Txistulari Bandak kontzertua emango du Milagrosan, arratsaldeko 17:00etan. Bederatzi kantu joko dituzte txistulariek, eta horietako bi pianoaren laguntzarekin. Pianistak Hernaniko Musika Eskolako ikasleak dira. Kontzertu bukaeran, *Cava* eta pasta batzuk eskainiko dizkiote jendeari, urteroko ohitura den moduan. 17:00etan Milagrosan.

Musika Bandak bihar emango du kontzertua Udaletxeko arkupeetan, Hernaniko Udalak antolatuta. Zortzi abesti joko dituzte, klasikoak ohi bezala, eta oso konpositore ezagunek eginak. Horien artean, Straussen *La Chasse*, edo Beethovenen *marcha turca*. Manuel Sagarna Goiburu arituko da musikariak zuzentzen. Kontzertua, igandean, 13:00etan Udaletxeko arkupeetan. □

Ttarlak 10 urte

TTARLA dantza taldeak 10 urte bete ditu dantza erakutsi eta zabaltzen. Hori dela eta, ospakizun ekitaldia antolatu du gaurko, Gudarien plazan. Arratsaldeko 17:30etan txokolatada izango da eta 18:00etan dantzaldia Leire eta Itxaso trikitalariarekin. Nagore Arraras Ttarlako kideak Kronikari azaldu dionez, 10 urte horietan Ttarlak lan asko egin du eta taldea asko hazi da. Hasieran, 20 ikaslerekin hasi zen eta gaur egunean 130 baditu. Dantza eskolak Biterin ematen ditu, eta aurten Udalak utzitako lokalean ere bai. Denera 12 irakasle inguru ari dira dantza erakusten. Ttarlak urtean ekitaldi dezente antolatzen ditu eta beste askotan hartzen du parte. Garrantzitsuenak: Dantzari Festa, Olentzerotako ekitaldia, Inauterietako konpartsa eta San Joanetako ekitaldia. □

Asteazkenean atxilotutako bat ez da Ainhoa Garzia

ASTEAZKENEAN Baiona ondoan bi lagun atxilotu zituzten. Horietako bat Beltzane Obanos da, eta ez Ainhoa Garzia hernaniarra, hasieran esan zuten bezala. □



Telemar Elkano 13 - ☎ 943 33 26 00
Kale Nagusia 7

EGUBERRI ON
Kontzultatu, gure Eguberritako eskaintzen aldizkaria

etxea apaintzeko gauzen eta oparien denda
diseinu grafikoa
serigrafia

andrekale35
kardaberaz, 35. Hernani.
Tel.: 943 33 60 05 - Faxa: 943 33 59 76

Ezkontza erreportaiak
Famili erretratuak
Haurrak
Jaunartzeak
Publizitatea
Moda

azul
photo studio

marisol eta amaia
Txalaka pas. 18 - 11b Ergobia
943 33 18 47
(659 97 29 93 - 607 35 71 80)

HERNANI INSTITUTUA - HITZALDI ZIKLOA GURASOENTZAT



Kontxi Mendarok 25 bat gurasori eman zien hitzaldia, asteazkenean.

Kontxi Mendarok balore moralak defendatu zituen

HERNANI Institutuak antolatu, gurasoentzako hitzaldi zikloak hasi ziren asteazkenean. Lehenengo hitzaldian Kontxi Mendarok hitz egin zuen baloreak eta hezkun-

tzaren inguruan. Mendarok balorez betetako edukazioa defendatu zuen, eta eguneroko norma edo legeen aurrean balore moralak azpimarratu zituen.

Mendarok adibide praktikokoagoak eta errealagoak ere jarri zituen. Joera autoritarioak edo maitasun faltak zein erreakzio dakartzkiten eta abar ere komentatu ziren. □

ERREMONTEA

Altuna II-Etxabe/Ezkurra-Urko gaur, binakako txapelketan

ERREMONTE jaialdia arratsaldeko 16:00-etan hasiko da Galarreta frontoian. □

GIMNASIA

Jaionek Tejedorrek saria

JAIONE Tejedor gimnasta hernaniarrak Di-putazioaren saria jaso zuen atzo Kursaaletan. Gaur, Gasteizen izango da, Euskadi eta Kataluinako selekzioen arteko neurketan. □

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Taldeak	Non	Noiz
Gorengoak	Aloñamendi- Hernani	Oñati	Bihar, 15:30	Kronika Txapelketa			
Emak. Liga	Zumaia- Hernani	Aita Mari	Gaur, 16:30	Eskuz	Joseba - Miner / Zapi - Etxeberria	Tiloseta	Gaur, 16:00
Gazt. Ohor.	Hernani-Martutene	Matigoxo.	Gaur, 17:15	Eskuz	Zabala - Garmendia / Mujika - Egaña	Tiloseta	Gaur, 16:30
Kad. 2. Mai	Sanpedrota- Hernani	Herrera	Gaur, 09:00	Eskuz	Txutxi - Koldo / Legarreta - Ezeiza	Tiloseta	Gaur, 17:00
ERRUCBIA				Eskuz	Zelaia - Urdangarin / Pablo - Fernando	Tiloseta	Gaur, 17:30
Euskal liga	Kakarraldo - Hernani	Plentzia	Gaur, 16:00	Gipuzkoako Txapelketa			
Jub. Eusk.	Atletiko SS - Hernani	Aiete	Gaur, 16:00	Eskuz	Aitor Sarasua / Altxatarra	Urnieta	Gaur, 15:00
Kad. Eusk.	Atletiko SS - Hernani	Aiete	Gaur, 12:00	Pala motz	Ubarretxena - Galarza / Zarautz	Urnieta	Gaur, 15:00
WATERPOLOA				Kadeteak	Fernandez I - Barrantás / Lizardi	Urnieta	Gaur, 15:00
Mut. 2garr.	Hernani B - Maristas	Kirolegia	Bihar, 13:00	Kadeteak	Ramos - Erdozio / Mundarro	Urnieta	Gaur, 15:00
				Infantilak	Ezeiza - Grajal / Antigua	Urnieta	Gaur, 15:00
				Infantilak	Fernandez II - Muñoz / Antigua	Urnieta	Gaur, 15:00

Asun Esnal
Bitxigintza

Enkarguzko lanak, zilarrekin eta urrearekin

joyeria artisandua

Bitxien konponketan egiten ditugu

Larramendi 3
HERNANI 20120
Tlfa. 943-33 04 78

OKINDEGIA
ANTZIOLA

Bitoko lekuan gaude, eguneroko ogirik onena banatzen!

ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91

ANTZIOLA
KAFETEGIA

Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refreskoak,...

Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.

Erakusketak.

ANTZIOLA OKINDEGIA GOZOTEGIA KAFEA

MONTEBIDEO, 3 behea

HITZ BITAN



Errelebotako nesken taldea domina jasotzen, eskubian.

✓ IGERIKETA

Hernanik txapelketa ona egin du Zarautzen. Neguko Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa jokatu berri da eta Hernanik paper ona egin du. Denera, 5 domina irabazi dituzte hernaniarrek, eta horietatik 3 Olatz Altunak irabazi ditu: urrezkoa bat eta zilarrezkoak beste bi. Oihane Sanzek brontzezko domina irabazi zuen eta laugarren medaila errelebotan irabazi zuten hernaniarrek, Altuna, Sanz, Jimenez eta Izagirrek. Orokorrean, neskak 6garren gelditu ziren, eta Hernaniko taldea 9garren, aurreko urtean baino 2 postu aurrerago.

✓ MAHAI TENISA

Lehenengo mailak bi partidua galdu ditu. Hernanik 2 partidu jokatu ditu Madrilan eta biak galdu ditu. Bi partidua gainera mailaz jeisteko kontrario zuzenak izango diren kontra ziren, eta horrek gauzak beltzago jartzen ditu. Bestalde, 26tik 29ra Hernanin jokatu dira Euskadiko txapelketak kategoriatik, eta hernaniarrak ere aterako dira hor.

✓ URUMEA IKASTOLA

1.224 zenbakia duenari egokitu zaio saskia. Urumea Ikastolan Gabonetako saskia zozketatu zen atzo eta 1.224 da zorioneko zenbakia. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik aurrera.

Bihar igandea: **TRAKETS**

OIALUME BILTOKIA
Oialume auzoa - 943 55 29 38

Antziola-Motor
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA

18 urte Hernanin, zuekin Ford-eko gama guztiarekin

Modelo guztiak zure eskura

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteazkera 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

expert **ANEXO**

IZPIZUA KALEA 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

Gabonetan eskaintza bereziak:

TV C PHILIPS 32"-panoramikoa- pant. plano: 1.016 euro)
TV PHILIPS 14"- TXT - frantsesekin: 168 euro
PHILIPS Bideoa - frantsesekin: 144 euro

Gabonetan larunbat arratsaldetan ere zabalik.

IRUBIDE
JATETXEA

GABON JAI ZORIONTSUAK
DESIO DIZKIZUEGU
Epele auzoa 7 - HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

Urdin

Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

Italia eta Parisko azken moda, Olentzero eta erregetako zure oparientzako.

EGUBERRI ON DENORI.

URDIN DENDA
Montebideo kalea 1 - HERNANI - (EPO eta atletismo pista artean)

Xarobe
DELICATESSEN
since 1983

Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net